

## GAKO EKONOMIKOAK

- Ekonomiaren suspertzearen seinale sendoek jarraitzen dute, nahiz eta birusaren Delta bariantearen efektuaren beldurra ere badagoen.
- Burtsak irabaziekien bukatu dute, nahiz ta, batit bat, hilabetearen azken egunetan, hegazkortasunaren igoera bat bizi izan.
- Zorraren interesen jaitsiera orokorra, bonu amerikarra minimoen zonan dago martxoaz geroztik, eta alemana zertxobait lasaitu duen. Europar arrisku primak eta kreditu pribatua hobetu dira.
- Euroak dolarrarekiko atzera egin du, petrolioak rally berri bat bizi izan dau, ta aldiz urreak aurreko hilabetean irabazitako gutzia galdu du.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Ekonomiaren hobekuntza orokorrak sendotasun handiagoa hartzen doa, nahiz eta leku guztietan berdin ez, inflazioaren presioek eta koronabirusaren bariante berrien hedapenak izan dira nagusi hilabete honetako kezken artean. Amerikako inflazioa bere helburutik askoz ere gorago dago (maiatzeko azken datuaren arabera, urte batetik bestera % 5 egin du gora), zalantzan jarritz prezioen gorakada handi horrek koiuntura izaera duen ala ez, aldiz, atzeraelikatutako prozesu egiturazkoa bilakatuko denaren zalantza, zeina kontrolik kanpoko inflazioa eragingo duen, pizgarriak bizkor kendu eta hobekuntza lekutik kanpo ateratzeko beharra sortuz. Badirudi merkatuek lehenengo aukeraren alde egin dutela. Izan ere, Erreserba Federalak, azken bilkuran, 2023ra aurreratu du, interes tasak igotzen hasteko izan daitekeen data, eta barne eztabaida ireki du pandemian emandako laguntza noiz kentzen hastearan inguruan. Ingurune horretan, begiradak orain lan merkatuaren bilakaeran daude jarrita, FEDaren pazientzia probatzeko gako adierazle gisa. Bien bitartean, Europako ekonomiaren eta inflazioaren egoera zertxobait desberdina da. BCEren presidentearen hitzetan "AEBk arrastatutako efektuaren zertxobait iritsi badaiteke" ere, egia esan, IPCaren azken datua espero baino gehiago doitu da, eta % 1,9koa izan da ekainean, maiatzekoaren % 2aren ondoan. Beraz, kezka txikiagoa da prezioen inguruan, baina Covidaren Delta bariantearen hedapenak ekonomian izan dezakeen eraginaren beldurra areagotzen hari da. Lagardek hobetze hori kolokan ez jartzeko finantzazio baldintzekin jarraitzeko beharra nabarmendu du berriz ere. Edonola ere, baliteke pandemiaren larrialdiko bonuen erosketen programaren etorkizuna irailean eztabaidatzea.

## ERRENTA ALDAKORRA

Ekainak hegazkortasun handiagoa ekarri diete finantza merkatuei eta jokabide mistoa izan dute, beheranzko interes-tasek mesedetutako sektoreen aldeko errotazioarekin (teknologia, esaterako, Nasdaq-ek % 6tik gora igo baitu ekainean) eta, aldiz, fenomeno horrek kaltetutakoen aurka, bankuak murrizketa horiek zuzendu ditu. Amerikako burtsak hilaren erdian izandako zuzenketari eman dio buelta eta S&P 500 indizeak +% 2,2 maximo historikoa bizi izan du, nahiz eta Dow Jones indizeak % 0,08 egin duen atzera. Europak ere izan ditu igoerak, Atlantikoaren beste aldekoak baino txikiagoak izan badira ere. Eurostox indizeak % 0,61 lortu du; holandar burtsak, % 2,84, bere profil teknologikoagoarengatik. Ibexak, bestetik, azken lau hilabeteetan izandako gorakada eten du, eta % 3,5 galdu du, turismoaren eta finantza sektorearen menpe egoteagatik. Harekin batera, Italia (-% 0,29) eta Ftse britainiarra (+%0,21) dira pandemia aurreko mailetara itzuli diren zonako selektibo bakarrak. Gainerako burtsen artean, japoniar indizeak gorrian bukatu du (-% 0,24), banku zentralaren burtsaren erosketen bukaeraren eskutik eta joko olimpikoak jokatu ahal izango direnaren inguruko zalantzen ondorioz, eta emergenteak, oro har, zertxobait erori dira, % 0,11. Edonola ere, urteko saldoa oso baikorra da, eta bi zifra portzentualeko irabaziak izan dituzte oro har.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2021eko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.821,20	EUR	%-3,58	%9,26
EUROSTOXX-50	EUROPA	4.064,30	EUR	%0,61	%14,40
S&P-500	AEB	4.297,50	USD	%2,22	%14,41
DOW JONES	AEB	34.502,51	USD	%-0,08	%12,73
NASDAQ 100	AEB	14.554,80	USD	%6,34	%12,93
NIKKEI-225	JAPONIA	28.791,53	JPY	%-0,24	%4,91
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.374,64	USD	%-0,11	%6,46
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	3.017,23	EUR	%1,40	%12,16

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOIA

FEDaren pazientziako mezuan sinesteak eta, hilaren azken saioetan, Covidaren berragertzeek ekonomiaren hazkundea gelditzeari beldurrak tasen jaitsiera orokorrak eragin ditu. AEBko zorraren interesak hiru hilabeteetako minimoen zonan bukatu dute, eta 10 urtetako bonuaren errentagarritasuna % 1,45etik behera jaitsi da. European, bund alemana -% 0,21era itzuli da -% 0,19tik. Gainera, hamar urterako espainiar bonua +% 0,40 arte lasaitu da. Errenta finko pribatua, bestetik, zertxobait hobetu da, zor publikoarekiko aldeak murriztu baititu, kreditu kalitate txikieneok bereziki.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2021ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,54	0,00	0,00
	6 HIL.	-0,52	0,00	0,01
	12 HIL.	-0,48	0,00	0,02
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,66	0,00	0,04
	5 URTE	-0,59	-0,02	0,15
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	10 URTE	-0,21	-0,02	0,36
	2 URTE	-0,51	-0,01	0,12
	5 URTE	-0,25	-0,02	0,15
	10 URTE	0,41	-0,05	0,37

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK ETA LEHENGAIK

Fed-ak 2023ko tasen lehenengo igoera egiteko itxaropenak dolarra sendotu du dibisa nagusiekiko. Euroaren aurrean, 1,185\$/eur-ko mailara itzuli da, % 3 igo ondoren ekainean zehar. Bestetik, Euro Zonaren monetak balioa galdu du Yenarekiko (-% 1,63), eta zertxobait gutxiago liberarekiko (-% 0,37). Aipagarria da kriptodibisen munduan izandako hegazkortasun handia ere, Txinatar gobernuak halako aktiboak debekatzeko erabakiaren ondorioz. Lehengaiak, petrolioak bere goranzko joerarekin jarraitu du eta 75\$/upelara iritsi da, hilabete honetan beste % 9ko igoera izan du, neurriko eskaintza eta eskaeraren igoeraren eskutik. Urreak, aldiz, maiatzean zehar igotako gutzia galdu du (+% 7).

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg